

# BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, gure gizartean, sexua tabu bat da eta nerabeak ez dute behar bezalako heziketa jasotzen. Horregatik, aplikazio bat sortu nahi dugu arazoa konpontzeko. Aplikazio hau, sexu-heziketa onuragarriaz aparte, laguntza, informazio fidagarria, ongizatea, erosotasuna eta segurtasuna eskeintzen digu.

Hasteko, gure aplikazioa, laguntza eskaintzean oinarritzen da. Ikusten den bezala, gizabanakoan, sexu-heziketa gaizki ikusitako eta informazio eskasa duen gai bat da. Zerbitzu honen bidez, ezjakintasuna murriztu nahi dugu informazioa errezten.



Ondoren, sexu osasuntsu bat izan dezagun, informazio fidagarria aurkituko da gure plataforman. Bertan, gai hauek jorratuko dira. Alde batetik, pertsonak aztertuko dira, genitalak eta dibertsitatea ikutuz. Bestetik, sexu-harremanak eta gurasoen eta semeen artean, sexuari buruz hitz egiteko erreztasuna landuko da.

Jarraitzeko, ongizatearen bidez, norberaren konfidantza landuko da. Bertako informazioa zure gorputza ezagutzeko baliagarria da. Ondorioz, autoezagutza lortu eta zure gorputzarekin eroso sentitzeko aukera izango duzu gizarteak inposatutako estereotipoak apurtuz.

Segidan, gure plataformak erosotasun handia ematen digu informazio fidagarria eta erraza emanez. Googleko web horrialde asko ireki ordez, behar duzun informazioa eskuragarri izango duzu gure aplikazioan modu bisual eta erraz batean.

Azkenik, segurtasun handia eskainiko du gure plataformak. Alde batetik, informazio sinesgarri emanez. Bestetik, aplikazioa pribatua izanez. Hau da, foroan idatzitakoa anonimoa izango da.



